

8. Wilhelm von Humboldt

1767-1835, prusiarra, Potsdam-ekoa

Komunikazioaren egilea: zenbait

8.1. Bizitza



“Wilhelm von Humboldt edo jaiotzez Friedrich Wilhelm Christian Carl Ferdinand hizkuntzalari, filosofo, diplomatiko eta noble prusiarra izan zen. Besteak beste, bere herrialdeko hezkuntza sistema diseinatu eta Berlingo unibertsitatea sortu zuen. Euskera zientziaren ikuspegitik aztertzen lehenengoetarikoa izan zen.

Wilhelm von Humboldt bere garaiko maila intelektual handienetako pertsonaia izan zen, eta haren ikerlanak oraindik ere ezinbesteko erreferentzia dira hainbat arlo zientifikotan, hizkuntzalaritzan, esaterako. Hamahiru urterekin greziera, latina eta frantsesa ederki egiten zuen. Ikasteko zuen ahalmenak helduak ikaratu zituen.

Gotingako unibertsitatean filosofia, historia eta antzinako hizkuntzak ikasi zituen. Irakasle handiekin ikasi zuen eta orduko kulturaren gizon-emakume sonatuenekin harremanak izan zituen, hala nola Goethe edo Schillerrekin, eta Euskal Herrian, Mogel, Astarloa edo Prestamerorekin.

1799an Euskal Herria lehen aldiz zeharkatu zuen, Madrilera bidean. 1801ean lehen bidaiari sortarazitako jakin mina ase ahal izan zuen, eta gure herrian zehar hara eta hona ibili zen hizkuntzaz, kulturaz, paisaiatz, ohiturez, erakundeez ohar ugari hartuta. Haien ondorioz idatzi zuen hizkuntza askotara itzulitako "Euskaldunak".

1808an irakaskuntza saila eman zion gobernuak. Erreforma handiak egin zituen. Bere ideietako bat Unibertsitateak Estatuaren kontrolatik aparte egon behar zuela zen eta 1810ean Berlingo Unibertsitatea sortu zuen. 1815ean diplomatiko bezala, maila handieneko lanak egin zituen.

1820an politika utzi eta hizkuntzalaritzari guztiz eman zitzaion. Lehenetarikoa izan zen hizkuntzalaritza konparatua; berrehun bat hizkuntza ezagutzera iritsi zen, haien artean euskera, bere kuttunenetakoa”. (Wikipediatik laburtuta: [Wilhelm von Humboldt](#))

Iritziak

Jose Antonio Arana Martija. “Bere garaian aitzindaria izan zela esan daiteke, euskera eta euskal kultura berak sartu baitzituen zientzian. Bultzada handia eman zien, eta berak sortutako eraginagatik hasi ziren zientzialariak euskera ikertzen.”

Pruden Gartzia: Humboldték Hezkuntzan jarri nahi zuen indarra, gizakiaren errespetu eta autonomian, haren gaitasunen langintza librean... Eta kulturaren bezala politikan ere liberal bat zen ororen buru... Parisen, politikari eta intelektual ugari ezagutu eta horien artean Garate eta bere eraginez, Euskal Herria bisitatzea erabakitzen du. Eta euskaldunetz maitemintzen da, deblauki, osorik eta betiko. Baina nola? Zergatik?

Humboldt euskaldunen sistema politikoaz maitemintzen da, hau da sistema foralaz. Prusiarraren arabera, hori da hain zuzen ere ezein estatista edo filosofok irudika dezakeen sistemarik hoberena, muturreko bi gaitz handiak (iraultza eta absolutismoa) ebitatzen duena. Zeren, euskaldunen artean ez dago beste herri batzuetan (Alemanian, Frantzian, Espainian, Italian...) ikusten den klaseen arteko zatiketa handia, aitzitik, euskaldunok pozik eta zoriontsu bizi dira

beren errepublika txikietan, pobreenek ere eskubide politikoak dituzte (foruen arabera nobleak dira!) eta parte hartzen dute sistema politikoan, aberatsagoen gidaritzapean, jakina, baina aberats horien eta herritar xumeen artean ez dago Europako leku gehienetan ikusten den eten izugarri hori (iraultza biolentoaren azken kausa, finean), baizik eta gizarte beraren parte izatearen kontzientzia osoa.

Non ikusten zuen Humboldttek euskaldunen espiritu nazional eta bakezale hori, oreka politiko eta sozialerako hain bide egokia eskaintzen zuena? Hizkuntza zen sakoneko eragilea, esana dugu, baina ikusi, beste gauza askotan ere ikusten da, adibidez, eta bereziki, euskaldunen dantzaldietan. [Pruden Gartzia euskal-nazioa-eta-iraultza](#)

[Iñaki Zabaleta Gorrotxategi](#) [Humboldt-eta-euskaldunak](#)

Humboldttek, bere garaiko jakintsu handienetakoa izanik, jakin izan zuen Euskalerriko izpirituarekin bat egitea, gure hizkuntza, kultura, dantza, foru eta abarrekin.

8.2. Argitalpenak



“Gure herrira hiru urtez etorri zen emaztea eta bi semeekin. “Bidaia honetan Bizkaia osoa ezagutu zuen herriz herri eta kostalde osoa, ondo ezagutuz. Bidaia hau, Guillermo Bokelmann bere lagunarekin egin zuen eta Landazuri, Axular, Moret, Bourgoing, Dillon eta Oihenarten lanak irakurri zituen. Mogel, Astarloa, Larralde eta Garat abesla-riak ezagutu zituen.”

“Humboldttek Europako mintzairarik zaharreneen artean kokatu zuen euskera eta bere ikerketek [euskoiberismoa](#) sortu eta zabaldu zuten.

Humboldtten lanen artean, nabarmentzekoak dira *Berichtigungen und Zusaetze zu Adelungs Mithridates über die kantabrische oder baskische Sprache* edo "Adelung-en Mithridates-i zuzenketak eta osaketak kantauriar edo euskal hizkuntzari buruz" ([Berlin, 1817](#)) eta *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache* edo "Hispaniako jatorrizko biztanleen ikerketaren azterketa euskal hizkuntzaren bidez" (Berlin, [1821](#))." (Wikipediatik laburtuta).

Liburua gaztelerara bai baina euskeraz ez da oraindik itzuli, gure egoeraren ispilu: *Los primitivos habitantes de España. Investigaciones con el auxilio de la Lengua Vasca*.

8.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Humboldttek hizkuntzaren jatorrian sakontzeko bide segurua erabili zuen: toponimia. Gaur egun euskal filologian edo wikipedian esaten dutenean Wlilhemek euskaliberismoarekin ez zuela asmatu amorrua sentitzen dugu, ez dutelako bere liburua irakurri nahi izan, ez dutelako liburua euskeratu nahi izan, ez dutelako penintsulako toponimiari buruz inolako ikerketarik egin nahi izan.

Humboldttek iberiar leku izen zahar askotan euskeraren jatorriko erroak ikus daitezkeela esan zuen.

BA eta **PA** atzizkiek, beste gauza batzuen artean, beheko aldean kokatuta agoela adierazi nahi dutela esan nahizuen baina, *ba*, askotan, beste hitz bati egoki ahal zaio, *Salduba* esaterako. Kasu hauek kenduta, *BA* atzizkiz amaitutako leku izenenen artean honakoak aipatu daitezke: *Adeba*, *Alaba*, *Astapa*, *Ilipa*, *Noliba*, *Norba*, *Serpa*, *Menoba*. Azken izen hauetan, *O* bokala, altuera adierazi nahi duena, *BA* aurretik kokatuta dago; gaur egun ere herri askok dute honako izena: *Oba*.

Humboldttek dio Astarloaren iritziz, **TANI** eta **TANIA** atzizkiak, *eteni* eta *etania* formapean ikusten direla *eta* atzizkiaren bilakaerak direla. Baina bera ez dago ados, *askotan*, *tanus eta tania*, eta *nus* eta *nia*, atzeritar hizkuntza bati dagozkion amaierak izan daitezkeelako. Horrela, *Toletanus*, *Toletum-etik* dator eta *Benexantanus Beneventum-etik*.

Humboldttek dio **AR** eta **AL** honako hitzekin lotuta egon litezkeela: *ara*, *arria*, *artea*, *aria*. Horien artean kokatu zituen izen hauek: *Alaba*, *Alavona*, *Alona*, *Alontigizeli*, *Alostig*, *Arocelitani*, *Arriaca*, *Arsa*, *Artigi*, *Aruci*, *Arucci*, *Arundai*...

Astarloak **BAE** edo **BE** erroa duten hitzak euskal berbak direla esan zuenez, berak zalantzak dauzka, leku izen asko feniziarrek aspaldi okupatutako lurraldeetan agertzen direlako: *Betica*, *Betis*...

CAR-GAR normalean altuerarekin lotutako izenetan ikusten ditu Humboldttek: *Caracca*, *Carabis*, *Carbula*, *Carca*, *Carietes*, *Carmonia* edo *Albonica*, *Leonica*...

OR erroan *O* dugu eta hori altuera esan nahi duela eta horregatik ikusten *dugu OR*, *OINA*, *GORA* edo *GOIA* hitzetan. *Izen batzuk*: *Oiz*, *Oienguren*, *Oinarte*, *Oion*, *Oinaz*, *Oba*, *Oca*, *Oña*, *Oñate*, *Oria*, *Ogena* baita Euskalerritik kanpo ere *Obila*, *Ocaso*, *Orcellis*, *Oreani*, *Orippo*, *Ortospeda*.

Gizakiaren ezaugarrietatik izen batzuk ere sortu zirela esan zuen: *Indartes* (*indar-etik agian*).

Humboldttek egin zituen beste zenbait proposamen etimologiko:

- Bil edo PIL errotik seguruenik Bilbilis, Bilbao
- Borta hitzetik seguruenik Burtina, Burdua
- Barna hitzetik seguruenik Barnacoya, Barnacis, Barum, Barea
- Azpi hitzetik seguruenik: Aspis
- Atea hitzetik agian Attacum, Attubi, Attequa
- Ara hitzetik agian Arabi, Arabriga,
- Aria hitzetik seguruenik Aritium
- Arria hitzetik Arriaca